



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2015KO URTARRILAREN 29AN EGINIKO OHIKO OSOKO
BILKURA

BERTARATUAK:

Jesus Peñagarikano Labaka
Eugenio Lopetegi Artano
Itziar Saizar Ibarzabal
Oihane Sarasola Nosellas
Laida Zubillaga Garmendia
Naiara Lopetegi Aiestaran
Hanot Karrera Amondarain
M^a Consuelo Romeo Aya

Ibarran, **bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeita bederatzian** arratsaldeko zazpirak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Jesus Peñagarikano Labaka, eta behin-behineko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave aritu zen.

EZ DIRA AGERTU:

Aitor Gonzalez Blanco
Mikel Agirrezabala Ezkurdia
M^a Iciar Jauregui Huarte

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeita bederatziko, arratsaldeko zazpiak direnean, Udalbatzak bilera egin du udaletxeko bilera-aretoan eta goian adierazitako jaun-andreak elkartu dira ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru Jesus Peñagarikano Labaka alkate jauna izan da, eta behin-behineko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Egintza hasi aurretik Alkateak eguneko gai-zerrendan mozio bat gehitzea proposatzen du; Hassanna Sahararraren asilo politikoaren inguruko mozioa.

Udalbatzak, aho-batez, 6 aldeko botorekin (BILDU) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea Hassanna Sahararraren asilo politikoaren inguruko mozioa gaur ospatzen den Udalbatzaren eguneko gai zerrendan barneratzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 1) 2014ko abenduaren 30ean eginiko ohiko udalbatza bilkuraren aktaren onarpena
- 2) 2015eko urtarrilaren 13an eginiko ez-ohiko udalbatza urgentearen bilkuraren aktaren onarpena
- 3) Alkate Dekretuak: 379/2014tik 10/2015ra eta 343/2014 dekretua jakinaraztea
- 4) Kontuhartzailearen 5/2014 txostenaren jakinarazpena
- 5) Ibarra Udalaren alde Euskal Herria 12ko jabekideek egindako doako lagapenaren onarpena. Alkateak kontratua sina dezan onartu.
- 6) Donostiako Administrazio Auzien epaitegiak 320/2012 prozeduran emandako epaia exekutatzeko
- 7) Mozioa: Erregistro zibilari buruzkoa Carlos Perales-ek aurkeztua
- 8) Mozioa: Hassanna Aaliari Sahararraren asilo politikoaren inguruko mozioa
- 9) Galde-Erreguak.

LEHENENGOA

2014KO ABENDUAREN 30EAN EGINIKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2014ko abenduaren 30eko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 6 aldeko botorekin (BILDU) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2014ko abenduaren 30eko ohiko bilkurako akta.

BIGARRENA

2015EKO URTARRILAREN 13AN EGINIKO EZ-OHIKO UDALBATZA URGENTEAREN BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2015eko urtarrilaren 13ko ez-ohiko bilkura urgentearen akta.

Udalbatzak, aho-batez, 6 aldeko botorekin (BILDU) honako hau



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2015eko urtarrilaren 13ko ez-ohiko bilkura urgentearen akta

HIRUGARRENA

ALKATE DEKRETUAK: 356/2014TIK 378/2014RA JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2014ko azaroaren 27tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 356/2014tik 378/2014ra.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

19:05 direnean, Hanot Karrera Bildu Koalizioko zinegotzia Udalbatzan barneratzen da.

19:06 direnean, M^a Consuelo Romeo Aya, EAJko zinegotzia Udalbatzan barneratzen da.

Hori dela eta, Idazkariak, ikusirik 2014ko azaroaren 27an eginiko ohiko udalbatzan EAJ-ko zinegotziak (2014ko urriaren 30eko ohiko bilkurako aktan, Kontuhartzaitzak eginiko zehaztapan bat, zabor tasetan hobariak aplika daitezkeen duda dutenez) Kontuhartzaitza sailari horren inguruko legezotasun txosten bat prestatzea eskatu zioten eta 2015eko urtarrilak 29an Udalbatzari aurkeztu dio Kontuhartzaitza sailak eginiko txostena.

M^a Consuelo Romeo Aya, EAJko zinegotziak, txosten honen inguruan idatzizko Bilduk idatzizko erantzun bat aurkeztuko duen galdetzen dio Alkateari. Honek aldiz, Udal askotan horabiak egiten ari direla eta bostgarren kontenedorearekin ere hobariak aplikatzen ari direla aipatzen du, adibidez Erreterri, Zarautz eta Donostian... beraz Bildu Koalizioaren ustez hobari horien aplikazioa legezkoa da eta ez du soilik Bildu Koalizioak egiten PSE eta EAJ partiduak dauden udaletan ere egiten ari dira. Azkenik, Alkateak Kontuhartzaitzari idatziz erantzungo zaiola adierazten du.

LAUGARRENA

KONTU HARTZAILEAREN 5/2014 TXOSTENAREN JAKINARAZPENA

Kontuhartzaileak honako txostena aurkeztu dio Udalbatzari:

Kontuhartzaitza honek, 1/2013 Foru Arauak, otsailaren 8koak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5 art.an xedaturikoa betez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza departamentuaren Instrukzioaren 1.go eta 3. Arauari (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) jarraiki, txosten hau egiten du Udalbatza jakinaren gainean gelditzeko.

1.- AURREKARIAK

1.1 1/2013 Foru Arauak, otsailaren 8koak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

garatzen duenak, 5 art.an neurri zehatz batzuk ezartzen ditu Gipuzkoako toki entitateetako aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna bermatzeko .

5. artikulua.– Zuzentze neurriak.

1.– Ez bada betetzen aurrekontu egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu araua, plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko da, urtebetean helburu horiek edo gastu araua bete ahal izateko.

2.– Dena den, zor helburua betetzen ez bada, hori lortzeko epea plan ekonomiko-finantzarioan ezarritako bideari egokituko zaio, eta inoiz ere ez du gaindituko 2020 urteko denbora muga.

3.– Bestetik, aurrekontu egonkortasuneko helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helaraziko beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzaitzak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.

1.2 13/2014 Foru Arauak, azaroaren 17koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, bere 2. artikuluan aldatu egin du otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateetako aurrekontu egonkortasun eta iraunkortasun finantzario arloan tintera finantzarioaren eskumena garatzen duena

2 Artikulua. Aldatzea 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, artikulua. Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

Modu honetan aldatzen da 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua:

Bat.Honela idatzita gelditzen da 5. artikulua 1. apartatua:

Ez «1. bada betetzen aurrekontu egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu araua, plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko da, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek edo gastu araua bete ahal izateko».

Bi.4. eta 5. apartatuak gehitzen zaizkio 5. artikuluari; hona hemen beren edukia:

Era «4. berean, gastu araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordeztu, komunikazio bat aurkeztu diezaiokete Udalbatzarrari edo organo baliokideari, Kontu-hartzaitzako organoak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

a) Aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- b) Urteko zor publikoko helburua betetzea.
- c) Urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea.

5. Foru arau honen 3. artikuluan jasotako Diputatuen Kontseiluaren erabakian zehaztu ahal izango dira aurrekontu egonkortasunari, finantza iraunkortasunari edo gastu arauari buruzko helburuetan gerta daitezkeen gehieneko desbideratzearen mugak, hain zuzen plan ekonomiko-finantzario bat egiteko betebeharretik salbuesten dutenak».

1.3 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2013ko azaroaren 19an, onarturiko Instrukzioaren 1.go . Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “ aurrekontu egonkortasunari” buruz hauxe dio hitzez-hitz:

1. erregela. Aurrekontu egonkortasunaren helburua.

1. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2014ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan ipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da defizita zero izatea, finantzaketa ahalmena edota premiaren bitartez neurtuta, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioari jarraituz.

Magnitude hori zehazteko, honakoa hartuko da kontuan:

—Entitatea aurrekontu eta kontabilitate publikoa eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia honakoen arteko diferentziaren bitartez kalkulatu da: Aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreraren eta aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen artekoa. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

—Entitatea enpresen Kontabilitate Plan Orokorra eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia Galera-Irabazien Kontuaren emaitzaren bitartez kalkulatu da. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

2014ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egiaztatu beharko da apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren orde, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hirugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

2. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2014ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da oreka finantzarioa



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

izatea. Ondorio horretarako, oreka finantzariotzat ulertuko da galerarik ez izatea, entitate bakoitzari aplikagarria zaion kontabilitate planaren arabera.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da entitate guztietan, banan-banan hartuta, bai 2014ko gastuen eta sarreren aurreikuspen egoeran, eta baita urteko kontuetan ere.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitateek apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez badute plan ekonomiko- finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

1.4 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2013ko azaroaren 19an, onarturiko Instrukzioaren 3.go . Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “ Gastu arauari” buruz haxe dio hitzez-hitz:

3. erregela. Gastuaren araua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2013aren eta 2014aren artean gastu konputagarriaren bariazioa % 1,5 baino handiagoa ez izatea.

Gastu konputagarria zehazteko enplegu ez finantzarioetatik abiatu beharko da, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioaren arabera neurtuta, eta horietatik kenduko dira bai interesak, bai beste herri administrazioetatik datozen sarrera finalistekin finantzatutako gastuaren zatia.

Enplegu ez finantzarioak zehazteko, berriz, aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuak hartuko dira oinarritzat. Horrez gain, enplegu ez finantzarioetan eragin adierazgarririk duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

Diru-bilketaren hazkunde iraunkorrak dakartzaten Araudi alaketak onartzean edota bilketan eragin positiboa izando duten kudeaketa neurriak aplikatzean, gastu konputagarriaren maila neurri berean handitu ahal izango da 2014an. Era berean, diru-bilketaren murrizketa iraunkorrak dakartzaten araudi-aldaketak onartzean, gastu konputagarriaren maila neurri berean gutxitu beharko da 2014an.

Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren orde, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udaltzari.

Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, planaren orde, komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udaltzari, kontu-hartzaileak sinatua, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

—2013ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.

—2014rako defizit eta zor helburuak betetzea.

Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da 2014ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean.

1.5 Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak, 2013ko azaroaren 19an, onarturiko Instrukzioaren 2. Arauak (Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan) “zor publikoaren helburua” ri buruz hauxe dio hitzez-hitz:

2. erregela. Zor publikoaren helburua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2014ko abenduaren 31ko zor bizia ez izatea 2013an likidatutako sarrera arrunten %95 baino handiagoa.

Zor bizia kalkulatzeko kontuan hartuko dira 2013ko abenduaren 31n indarrean ziren eragiketa guztiak, abaleatik eratorritako arriskua barne; eta horri gehituko zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2014rako aurreikusitakoak, eta kenduko zaizkio 2014rako aurreikusitako amortizazioak. Magnitude horretan ez dira kontuan hartuko Udalak Finantzatzeko Foru Fondoarengatik (UFFF) itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

2014ko aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egiaztatu beharko da erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela.

Zorraren helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2014-2017 epealdia aurreikusiko duena. Plan horretan jasoko den zor murrizketaren bilakaerak bermatu beharko du 2020an zorraren ratioa %70 baino handiagoa ez izatea.

1.6 Udaltzakoak, 2014ko azaroaren 27an eginiko bilkuran erabaki zuen onartzea 5/2014 Kreditu aldaketan espediente, Kreditu Gehigarrien modalitatean, partida berriak aurreikusten dituen gastuetan edo jada daudenak zabaltzea. Honako taularen arabera da aldaketa hori:

Aurrekontu-saila	Azalpena	Egungo kredituak	Aldaketak Gehikuntzak
1.0000.131.322.00.0 1	Enplegua sustatzeko langile hartzekodunak.	36.250,00	3.000,00
1.0000.203.511.00.0	Renting errentamendua.	4.610,00	378,00



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

0			
1.0000.212.460.00.0 0	Ibai-gain lokaletako mantenimendua.	825,00	175,00
1.0000.215.121.00.0 0	Informatika mantenimendua	16.000,00	6.000,00
1.0000.221.321.00.0 1	Gazte lokaleko argindarra.	600,00	200,00
1.0000.221.421.00.0 1	Haurreskolako argindarra	3.200,00	1.500,00
1.0000.221.421.00.0 3	Berogailuaren erregaia	3.000,00	6.000,00
1.0000.221.434.00.0 2	Herri iturrietako ura	600,00	200,00
1.0000.221.434.00.1 1	Lorezaintzako tresnak	1.925,00	555,00
1.0000.221.451.04.0 1	Azkue lokaleko argindarra	1.400,00	1.250,00
1.0000.226.454.02.0 6	S:Ignacio auzoko festak	1.800,00	139,00
1.0000.227.190.00.0 2	Lan arriskuen zerbitzua	6.000,00	437,00
1.0000.227.121.00.0 7	Zerbitzu juridiko-tekniko kontratua.	8.000,00	17.950,00
1.0000.227.422.00.0 2	Suteen aurkako segurtasun kontratua, hezkuntza	1.156,00	175,00
1.0000.227.442.02.0 1	Bide garbiketa kontratua	157.200,00	14.000,00
1.0000.227.452.01.0 5	Kiroldegiko mantenimendu eta harrera zerbitzua	85.000,00	12.300,00
1.0000.227.452.02.0 2	Segurtasun zerbitzuaren kontratua	1.856,00	750,00
1.0000.227.442.01.0 7	Tolosaldeako mankomunitatea: zerbitzua	350.000,00	45.000,00
1.0000.422.720.00.0 0	Apatta udal erakundeek ekarpena	191.000,00	89.816,00
1.0000.430.452.01.0 0	Kirol elkartei dirulaguntzak	38.000,00	2.099,00
	GUZTIRA.....		201.924,00

Aurrekontu partida	Atala	EGUNGO KREDITUAK	ALDAKETA KENKETA
1.0000.226.121.00.0 2	Harrera gastuak	6.000,00	4.000,00
1.0000.601.460.02.0 0	Aterpea: San Bartolome enparantza	182.000,00	63.924,00
1.0000.642.432.00.0 00	Planeamenduko Arauak egiteko lanak	51.200,00	26.000,00



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

		0	
1.0000.212.460.00.0 0	Hirigintzako proiektuak	10.000,0 0	8.000,00
	GUZTIRA.....		101.924,00

- 1.6.1 Espediente horrek betetzen du “zor publikoaren helburua” zor bizia, 2014ko abenduaren 31n haxe delako: 2013ko likidaturiko diru-sarrera arrunten %49,90 soilik; eta goian aipaturiko instrukzioaren 2. arauak xedatzen du zor bizia ezin dela izan 2013an likidaturiko diru-sarrera arrunten %95 baino altuagoa.
- 1.6.2 Dena den, 2014ko aurrekontu orokorrerako 5/2014 kreditu aldaketan espedienteak, kreditu gehigarriak modalitatean, ez du betetzen 1.go araua “aurrekontu egonkortasunaren helburua” izenekoa ezta 3. araua “Gastu araua” izenekoa, txosten honetako “Aurekariak” ataleko 2 eta 3 azpiataletan aiaputu direnez.
- 1.6.2.1 “Aurrekontu egonkortasun helburua” ez da betetzen, laurehun eta hirurogeita bederatzi mila ehun eta hamazortzi koma berrogeita zortzi euro (-469.118,48)defizita duelako , SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Foru Aldundiaren helburua 2014ko defizita zero izatea da.

Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, ondoko taulan ageri den moduan:

GASTUAK		Aitorturiko betebeharrak	DIRU-SARRERAK		
I KAP	langileak	1.442.464,0 0	I KAP	Z. zuzenak	1.047.425,00
II	Ohiko ondasun eta zerbitzuak	1.970.012,2 3	II	Z. zeharkakoak	20.000,00
III	Interesak	10.382,00	III	Tasa eta bestelako diru-sarrerak	699.407,00
IV	Ohiko transferentziak	966.445,00	IV	Ohiko transferentziak	2.585.526,00
V			V	Ondare diru-sarrerak	8.000,00
VI	Inbertsioak	516.995,25	VI	Inbertsio.-erreal. besterentze	
VII	Kapital transferentziak		VII	Kapital transferentziak	94.422,00



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	GUZTIRA	4.906.298,4 8		GUZTIRA	4.454.780
--	---------	------------------	--	---------	-----------

Aurrekontu egonkortasuna ez betetzearen arrazoia da diruzaintzako geldikina erabili izana. Horregatik, 1/2013 Foru Arauaren 5 art.aren 3. paragrafoari jarraiki, kontuhartzaileak udalaren egonkortasun finantzarioa aztertu eta ebaluatu behar du.

1.6.2.2. Bestalde “Gastu Araua” ez betetzea gauzatzen da aurrekontu aldaketan gastu konputagarrien bariazioa izan delako 2013ko aurrekontuko gastu likidatuaren eta 2014ko gastu konputagarrien artean; horien artean sartuta, noski, kreditu aldaketan aurreikusitako gastuak, %27,16 eta Foru Aldundiak ezarritako helburua 2014rako da gastu konputagarriaren bariazioa %1,5 baino txikiagoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko goian aipaturiko erakundearen datu finkatuak izan dira kontuan, hurrengo taularen arabera:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	Gastu ez finantzarioa 2013 (Kap 1 - 7)	4.029.274,79
a2	Doiketak SEC	0,00
a3	Interesak 2013	10.919,91
a4	Erasandako finantziadun gastuak 2012	347.069,25
a=a1+a2-a3-a4	Gastu konputagarria 2013	3.671.285,63
b1	Gastu ez finantzarioa 2013 (cap 1 a 7)	4.305.318,00
b2	Doiketak SEC	0,00
b3	Interesak 2014	10.382,00
b4	Erasandako finantziadun gastuak 2014	245.478,00
b5	Araudi aldaketa eraginak	0,00
b6	1/2014 kreditu aldaketa esped.	428.791,48
b7	2/2014 kreditu aldaketa esped.	23.121,00
b8	3/2014 kreditu aldaketa esped.	66.910,00
b9	5/2014 kreditu aldaketa esped.	100.000,00
b=b1+b2-b3-b4+b5+b6+b7+b8	Gastu konputagarria 3/2014 kreditu aldaketarekin	4.668.280,48
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%)	27,16

Aurrekontu egonkortasuna ez betetzearen arrazoia da diruzaintzako geldikina erabili izana. Horregatik, 1/2013 Foru Arauaren 5 art.aren 3. paragrafoari jarraiki, kontuhartzaileak udalaren egonkortasun finantzarioa aztertu eta ebaluatu behar du.

2.-ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko otsailaren 19koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 28koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.
- 13/2014 Foru Arauak, azaroaren 17koak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.

3. UDALAREN IRAUNKORTASUN FINANTZARIOAREN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA.

3.1 2014ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2013an likidatutako sarrera arrunten % 49,90 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2013ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2014rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2014rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2013an likidatutako diru-sarrera arruntak 4.240.229,05 €

Zor bizia 2013.12.31n 2.265.140,79 €

Abalak 0,00 €

Formalizatu baina xedatu gabeko eragiketak 0,00 €

2014an aurreikusitako amortizazioak 149.462,00 €

$2.265.140,79 - 149.462,90 \text{ \%} = \text{\% } 49,90$

4.240.229,05

Foru Aldundiak 2014rako ezarritako helburua magnitude hori %95 baino txikiagoa izatea denez, udalak tarte handia du bere egonkortasun finantzarioa betetzeko.

3.2 2013ko Aurrekontu Orokorren kitapenak diruzaintzako geldikin eta aurrezte garbi positiboak ditu.

3.3 2014ko Aurrekontu orokorrak zero defizita du eta bere zor publikoak betetzen ditu otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak ezarritako helburuak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3.45/2014 kreditu aldaketaren espedientearen gastuek, 2014ko aurrekontu orokorreko kreditu gehigarriak modalitatean, ez dakarte berez, udalak ematen dituen zerbitzuen kostua handiagotzea, hondakinen bilketa izan ezik (gastu handiagotze hori konpentsatua geldi daiteke ingurumenaren hobetzearekin), ez beste zerbitzu berririk. Gainerako gastuek izaera puntuala eta koiunturazkoa dute. Horrenbestez, udal zerbitzuen egungo kostua mantentzen bada eta udalaren ohiko diru-sarrerak mantentzen badira, epe ertain eta laburrean, udalak ez du beharko neurri berezi edo apartekorik bere egonkortasun finantzarioa bermatzeko.

Horregatik, espedientea aztertu eta ebaluatu ondoren, kontuhartzaile honek hau

ONDORIOZTATZEN DU

Aurrekontu Orokorraren 5/2014 kreditu aldaketa espedienteak, kreditu gehigarriak modalitatean, betetzen du zor publikoaren edo finantzen iraunkortasun helburua, nahiz eta koiunturalki ez duen betetzen aurrekontu egonkortasun helburua eta gastu araua.

Udalbatza jakinaren gainean gelditzen da.

BOSGARRENA

IBARRAKO UDALAREN ALDE EUSKAL HERRIA 12KO JABEKIDEEK EGINDAKO DOAKO LAGAPENAREN ONARPENA. ALKATEAK KONTRATUA SINA DEZAN ONARTZEA

Juan Jose Larrarte Sarasola jauna, Euskal Herria 12ko jabekideen ordezkari gisa, eta Jesus Peñagarikano Labaka jaunaren, Ibarra Udalaren Alkate eta ordezkari gisa, arteko doako lagapen kontratua ikusten da.

Kontratu honetaz gain, Ibarra Udalak, Euskal Herria 12 urbanizazioaren atzeko aldean eginiko barandilen konponketaren kargu egingo zela agindu zuen (ulertzen baita erabilera publikoa izan duela barandila horiek dauden terenoak, zortasuna bat eraturik baitago) eta jabekideek aurkezten duten faktura aurkezten da.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (7 BILDU eta 1 EAJ) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea Euskal Herria 12ko jabekideek eginiko doako lagapena, 1.130 m2 ko terreno zatiarena alegia sinaturiko doako lagapen kontratuak ezartzen dituen baldintzetan (I Eranskina).

BIGARRENA: Jesus Peñagarikano Labaka Alkatearen gain uztea, Ibarra Udalaren izenean eta ordezkartzan, doako lagapen kontratu honen sinadura eta legezztatzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Euskal Herria 12 urbanizazioko jabekekideei ordaintzea 3.260,38 eurotako kopurua urbanizazioan egin zituzten barandilen konpokatari dagokiona. Ordainketa, ES 7720955067191060769923 kontu korrontean egingo da.

LAUGARRENA: Erabakia harturik, notaritzan erregistratu eta Jabetza erregistroan inskribatu jabetza. Udaleko inbentarioan barneratu lagapeneko terrenoak.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitetza sailari.

I-ERANSKINA

Ibarran bi mila eta hamabosteko urtarrilaren.....an

LURRAK DOAN LAGATZEKO KONTRATUA

Batetik, Jesus Peñagarikano Labaka, jn. Ibarra alkate jn, ahal hori eman baitzion udalbatzak 2011ko ekainaren 11ko bilkuran, eta alboan bitarteko idazkari Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave , NAN72.451.512-V, egintzaren fede emateko.

Horrez gain,

JUAN JOSÉ LARRARTE SARASOLA , NAN 15.224.261-D, Ibarra erroldatua eta Euskal Herria 12 zk.ko Jabekekideen komunitatearen lehendakari eta izenean (ahal hori eman zion Jabekekideen Komunitateak 2014ko otsailaren 19an eginiko batzarrean) honakoa

ADOSTEN DUTE

LEHENA: Euskal Herria 12 zk.ko Jabekekideen Komunitateak, 2014ko otsailaren 19an eginiko bileran, erabaki zuen doan lagatzea Ibarra Udalari, jabari osoan, Euskal Herria 12 zk.ko eraikina inguratzen duen lur zatia. Ondoren zehazten dira hiritartze lurra eta doan lagatze den lur-zatia:

Aipatutako eraikinaren obra berriko eta konfigurazio horizontaleko eskrituren arabera, azalera lau mila hirurehun eta berrogeita hamaika metro karratu ditu (4.351 m²). Horietatik eraikitako azalera (eskritura publikoen arabera) bi mila bederatziehun eta hogeita hamahiru dira (2.933 m²). Eraikinaren perimetroa, batez ere espaloia publikoa , aparkalekua eta eremu librea dena bi horien arteko aldea da, hau da 4.351 m²(finka osoa) eta 2.933 m²ren (azalera eraikia) artekoa, hots 1.418 m².

Eraikinaren perimetroa honetan (1.418 m²) 52 etxebizitzetako elementu komuna dago eta bertan PGL depositua (eraikinaren mendebaldeko parte), 288 m²koa. Elementu hori Euskal Herria 12 zk.ko Komunitateak Udalarekin egin nahi duen doako lagatze hitzarmenetik kanpo gelditzen da , eta beraz, 1.130 m² lagako dira. Hauek dira terrenoaren xehetasunak:

1. Eraikinaren iparraldean , ehun eta hogeita hiru metro karratuko espaloia. Ez du okupatzen ez eserleku, ez zuhaitz ez egungo argiteriarik.
2. Eraikinaren ekialdean hirurehun eta bat metro karratu bide; bertan dira oinezkoen pasabidea, espaloia eta erabilera publikoko ibilgailuen aparkalekua .



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

3. Eraikinaren mendebaldean, hirurehun eta laurogeita hamar metro karratu; eremu librea iturri eta haur parkearekin. Lur zati horrek bide-zorra du Euskal Herria 8 zk.ko komunitatearen alde. Lagatze horretatik kanpo gelditzen dira alde honetako berrehun eta laurogeita zortzi metro karratu, gas propanoko deposituak dagokiona. Eremu hori segurtasuneko hesi batek inguratzen du, Euskal Herria 12 zk.ko etxebizitzaren eremu komunei dagokionez, merkataritza lokalak sartu gabe bertan.
4. Eraikinaren hegoaldean, hirurehun eta hamahiru metro karratu, Garmendia Eraikuntzak eginiko eraikuntzarekin mugakide, ekialdean ibilgailuen sartu-irteerarako tokia izan ezik, eremu hori ez baita lagako.

BIGARRENA: Alkate-lehendakariak bere aldetik, Ibarra udalbatzaren izenean hitz ematen du lur lagatze hori onartu eta ondorengo baldintzak betetzeko:

1. Udalak bere gain hartzen du lagatze honen eremuko elementu publikoak mantentzeko, berritzeko edo aldatzeko.
2. Udalak bere gain hartzen du beharrezko diren zerbitzu publikoak emateko Euskal Herria 12 zk.ko titularitate pribatuko zoruaren segurtasun, argiteria, garbitasun eta bideetako zoladura bermatzeko, baldin eta erabilera publikoko zortasunari lotuak baldin badaude, ondorengo kasuetan bezala: Komunitatearen ataripe eta ondoko terraza. Prestazio hauek udalak erabakiko ditu egoera eta udal aurrekontua kontuan izanda.

HIRUGARRENA: Lagatze hau sinatetik eratorritako gastuak (notaritza, erregistroa eta udal zergak) Ibarra Udalaren esku izango dira. Behin erregistro tramitea burutu ondoren, Ibarra udalak udal inbentarioan sartuko du lagatze hau.

LAUGARRENA: Kontratu hau burutuko da bi aldeek sinatutakoan.

Eta beren adostasunaren seinale. Agiri hau sinatzen dute bi aldeek ale bikoiztuan goiburuan adierazitako toki-egunetan.

SEIGARRENA

DONOSTIAKO ADMINISTRAZIO AUZIEN EPAITEGIAK 320/2012 PROZEDURAN EMANDAKO EPAIA EJEKUTATZEA

2014ko abenduaren 29an Ibarra Udalarik 2416 erregistro zenbakiarekin Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko epaitegiaren erabaki irmoa jakinarazten zaio. Bilboko Auzitegi Gorenak 485/2014 sententzia bidez 320/2012 prozedura arrunteko gaiaren inguruan erabakia eman zuen eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko epaitegiak dagoeneko epai irmoa eman du gai honen inguruan. Sententziaren arabera, Ibarra Udalak udaleko fatxadan duen parkarta (presoak euskal herria ezartzen duena) erretiratzera eta kostu prozesalak ordaintzera kondenatzen du. Estatuko Abokatuak prozesuan alegaturikoa honakoa da:

“la colocación en el balcón del Consistorio de un lema político reclamando el regreso de los presos vascos al País Vasco supone una clara infracción del principio de objetividad y neutralidad al que deben sujetar su actuación las Entidades Locales, consagrado en el artículo 103 de la Constitución Española y en el artículo 6.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril (LBRL),



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

además de antentar contra el derecho a la dignidad de las víctimas del terrorismo y vulnerar lo dispuesto en el artículo 4 de la Ley de Parlamento Vasco 4/2008, de 19 de junio, de Reconocimiento y Reparación a las Víctimas del Terrorismo del País Vasco. El Ayuntamiento de Ibarra, cuando procede a colocar en el edificio consistorial una pancarta reclamando el regreso de los presos que están cumpliendo sus penas en centros penitenciarios situados fuera del País Vasco, se está posicionando políticamente a favor de un determinado colectivo de presos (los pretenecientes al círculo etarra), con lo que quiebra necesariamente el carácter objetivo que ha de presidir la actuación de toda Entidad Local, convirtiéndose, en definitiva, en una institución al servicio de los postulados de determinados grupos políticos y sociales lo que, atendiendo a la doctrina jurisprudencial anteriormente expuesta, resulta inaceptable y contraria a derecho”.

Ibarrako Udalaren abokatuek honakoa alegatu dute:

“pankartan dagoen mezua inolako eragingarritasunik gabeko adierazpen mezu soila da, una mera expresión teórica carente de virtualidad operativa. Mezuak bat egiten duela Euskal Herriko gizartean guztiz errotuta dagoen nahia eta sentiberatasunarekin, hots, senideak edota lagunak urrutiko presondegietan dituzten hiritarrek nozitzen dituzten arazoei amaiera emateko nahiarekin. Ibarrako Udalak herriko biztanleekiko duen gertutasuna dela medio, ezagutzen du zer nolako esfortzu handia egiten ari diren herriko familia askotan espetxeratutako senide eta lagunarekiko harreman afektiboak mantentzeko. Udalatxeko fatxadan zegoen mezuak ez du estatuko abokatuak esandako posizioz adierazten, baizik eta preso dauden pertsonen senide edota lagunak duten arazokiko sentiberatasuna...”

Auzitegi Nagusiak aldiz honakoa adierazi du:

“la sentencia recurrida no niega el derecho de los órganos de representación y gobierno de la entidad local o de sus miembros de expresar sus ideas y opiniones o de formular delcaraciones de carácter reivindicativo, social o político. La actuación recurrida no ha tenido por objeto una manifestación o expresión de esa naturaleza, dentro del respeto de las leyes y al régimen de competencias de la Administración local, mejor dicho, sin injerencia en las competencias de otras Administraciones o poderes públicos. Lo que la sentencia de instancia ha examinado es una actuación material marcada por su parcialidad (uti singuli) y adhesión a una determinada opción ideológico-política, cosa bien distinta de una reivindicación o declaración favorable a la aplicación uti univeri de determinadas mediads o beneficios legales”

Guzti hau ikusirik epaiak dio Ibarrako Udala kondenatzen duela eta ondorioz pankarta kendu behar duela eta lehen instantziako kosta prozesalak ordaindu behar ditula.

2015eko urtarrilaren 21ean, Ibarrako Udalak 2.016 eurotako ordainketa egin duenaren ziurtagiria igorri dio Donostiako Administraziarekiko Auzien 3 zko epaitegiak.

Ikusita EAEko Auzitegi Nagusiaren kondena, 2014ko azaroaren 5ekoa, Ibarrako Udala Udaletxeko balkoitik “Euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira” dioen banderola kentzera zigortzen duena, Ibarrako Udalak honako mozio hau aurkeztu du:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Gaur, errealitate objektiboa da Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoaren ondorioz preso dauden euskal herritarrei erabaki politikoek eragindako neurri bereziak aplikatzen zaizkiela kartzela politikan: epaitegi bereziek epaitzen dituzte, zigor neurri bereziak ezartzen zaizkie, kartzela zigorrak luzatzen zaizkie legeak berak esandakotik haratago, Euskal Herritik urrundu eta erregimen bereziak aplikatzen zaizkie...

Gaur, errealitate objektiboa da Euskal Herrian egoera politikoa aldatzen ari dela. Modu jakin batera edo bestera ulertu Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoa, gaur Euskal Herriko eragile politiko eta sozial guztiek onartzen dute funtsezko aldaketak ari direla ematen eta aukera berriak ari direla zabaltzen Euskal Herrian normalizazio politikoa eman dadin. Baina oraindik ez da lortu normalizazio politiko eta sozialik: ez dira euskal herritar guztion eskubideak errespetatzen; ez dira eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatzen; ez da behar bezalako saiakerarik egin gatazkak eragindako modu bateko zein besteko biktimen mina aitortu eta erreparazioan eragiteko...

Gaur, errealitate objektiboa da euskal eragile politiko eta sozial gehienek, eta baita herritarren gehiengo oso zabalak ere, pentsatzen dutela posible dela bestelako kartzela politika. Are gehiago, posible ez ezik, beharrezkoa ere badela, batetik, gatazkaren ondorioak humanizatzeko, bestetik, normalizazio prozesua sendotzeko.

Horregatik, Udal honek beti egin du bat espetze politika aldatzeko eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskubide eta eskaerarekin.

Gaur, amets egiten dugu bihar oso bestelako egoera bat bizitzearekin. Gatazka politikotik bortxa adierazpen guztiak desagertzearekin, euskal herritar guztien eskubide guztiak errespetatzearekin, bizikidetzara normalizatuarekin... Amets hori errealitate bihurtzeko, ordea, hainbat urrats sendo eta ausart eman beharko dira. Herritarrek, eragile sozialek, alderdi politikoek, gatazkaren subjektu guztiek, erakundeek... eman beharko dituzte urratsak. Banaka harturik, segur aski ez nahikoak. Baina denak ezinbestekoak, eta guztiak baturik, konponbide globala ekarriko dutenak.

Horregatik guztiagatik, Ibarako Udalak:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.- Gaitzetsi egiten du EAeko Auzitegi Nagusiaren kondena, 2014ko azaroaren 5koa, Ibarra Udala Udaletxeko balkoitik “Euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira” dioen banderola kentzera zigortzen duena.

2.- Herritarren iritzi, sentipen eta aldarrikapenen berri izan nahi du eta herritarrei hitza ematen die

Consuelo Romeo Aya-k, EAJko zinegotzia, hitza eskatzen du eta honakoa adierazten du: 1999. urtetik bandera hori Udalean egon da (bera Alkatesa bezala egondako bi legealdietan ere horrela izan da) eta gatazka politiko gogorragoak zeuden garaietan ere bertan egon da. Ez du ulertzen Estatuko Abokatuak orain banderola horrekiko duen jarrera. Jarrera honetatik gauza bakarra ondoriozta daitekeela, PP partidua BILDU koalizioaren legealdira itxaroten egon direla auzietan sartzeko udalak.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (7 BILDU eta 1 EAJ) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Gaitzetsi egiten du EAeko Auzitegi Nagusiaren kondena, 2014ko azaroaren 5koa, Ibarra Udala Udaletxeko balkoitik “Euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira” dioen banderola kentzera zigortzen duena.

BIGARRENA: Udaletxean Presoak Euskal Herrira ezartzen duen banderola kentzea nahiz eta gaitzesten duen gizartearen gehiengoaren borondatea ez baita errespetatzen.

HIRUGARRENGOA: Auzitegiari erabaki honen berri ematea

ZAZPIGARRENA

MOZIOA: ERREGISTRO ZIBILARI BURUZKOA

2015eko urtarrilaren 15ean 084 erregistro zenbakiarekin, Carlos Perales jaunak honako mozioa aurkezten dio Ibarra Udalbatzari, honek onar dezan:

MOZIOA

Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzio aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak;



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek haien beharrezkoa duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.

Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburuetara joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.

Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduan modernitzatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanez, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.

Aurtengo otsailaren 20an, PNV-EAJ, Euskal Herria Bildu eta Partido Socialista eta Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderdien babesarekin, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu zuen Erregistro Zibila gaur egun dagoen moduan mantentzeko, hiritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskaintzeko.

Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:

1. 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.
2. Bake epaitegiak egungo zereginenez hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Boterer Judizialaren Lege Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera emango diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko dituztelarik.
3. Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

dagokienez, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahiaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etab... Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, helbide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatak jarduera izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.

4. Datu Basearen segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarren datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.
5. Azken urteetan Erregistro Zibila modernitzatzeko egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztioen ematea ere. Baliabide materialak, ematea diru publikoa xahutzea da: inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak; azpiegiturak eginak eta giza balibideak kontratatuak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituko zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.
6. Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarrerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitaiteke bertan.

Hau guztia dela eta, Ibarra Udaleko Osoko Bilkurari eskatzen diogu:

- Merkataritza Erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka ager dadin.
- Halaber, adieraz ditzan bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibila kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikako eskainiz, orain eta betiko
- Kontutan izanda aipatutako EDLa indarrean sartuko dela 2015eko uztailaren 15ean eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginda, udal honek eska diezaion Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan.

Honako ikusi eta aztertu ondoren, Udaltzako, aho-batez, 8 aldeko botorekin (7 BILDU eta 1 EAJ) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea eta bat egitea Carlos Perales jaunak aurkezturiko mozioarekin.

BIGARRENA: Ibarra Udalak, Merkataritza Erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka agertzen da.

HIRUGARRENA: Ibarra Udalak adierazten du bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibila kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikako eskainiz, orain eta betiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA: Ibarra Udalak, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan (gehienbat 8/2014 Errege Dekretu Legegilea indarrean sartuko baita 2015eko uztailaren 15ean) eta modu berean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat egin dezan.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri eman Eusko Jaurlaritzari.

ZORTZIGARRENA

BILDU KOALIZIOAK UDALBATZARI AURKEZTEN DION MOZIOA, HASSANNA AALIARI SAHARARRAREN ASILO POLITIKOAREN INGURUKOA

MOZIOA

Hassanna Aalia 1988an jaio zen Aaiun hirian, Mendebaldeko Saharan.

2010ean aktiboki parte hartu zuen Gdeim Izik-eko bake-protestako kanpamentuan. Gertaera horrengatik epaitu egin zuten eta lau hilabeteko espetxealdia (burutu gabe) ezarri zioten.

2011ko urrian aukera izan zuen Euskal Herrira bidaiatzeko, ikasketa-beka batekin, hizkuntza ikasteko. Bi hilabete falta zitzaizkionean Aaiunera itzultzeko, bere izena agertu zen Gdeim Izik-ko gertakariengatik epaitzekoak zirenen artean. Gauzak horrela, erabaki zuen, batetik, bere herrira ez itzultzea, hain zuzen ere, agintari okupatzaile marokoaurrek atxilotu egingo zutelako; eta bestetik, asilo politikoa eskatzea espainiar gobernuari.

2013ko otsailaren 17an, Rabat-eko auzitegi militarrek 25 zibil sahararren kontrako epaia eman zuen; horien artean zegoen Euskal Herrian bizi den Hassana Aalia. Honi betiko kartzela-zigorra ezarri zioten auzi-ihesean.

Geroztik, Espainiatik barrena dabil ezagutzera ematen kartzelatuta dituen lagunen egoera eta egunero erregimen marokoaurre herri sahararrarekin egiten ari den injustizia.

2015eko urtarrilaren 19an Hassana-ri jakinarazi zioten bere asilo eskaerari ezezkia eman ziotela eta 15 eguneko epea zeukala Espainiako lurak uzteko.

Horrengatik guztiagatik, eskatzen dugu:

-Agintaritza eskudunei eta Barne Ministroari gai honi heltzeko eta berriz aztertzeko Hassanna Aalia-ren asilo politikoa eskatzea; izan ere, bere herrialdera itzultzen bada, zigor gogorra ezarriko diote agintari okupatzaile marokoaurrek, eta ezin izango du kartzelarik atera bere bizitza osoan, oso pertsona aktiboa delako politikoki eta inoiz ez diolako utzi borrokatzeari modu baketsuan bere herriaren autodeterminazio eskubidearen alde. Dagoeneko borroka horrengatik hainbat eta hainbat aldiz atxilotua izan da eta sarritan torturak pairatu ditu.

-Ibarra Udalak dei egiten die herritarrei Hassanna Aali gaztearen alde eta bere expulsioren aurka burutuko diren mobilizazioetan parte hartzera.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

-Moziok hau Fronte Polisarioak Euskadin duen ordezkariari, Espainiako Gobernuko Barne Ministerioari eta Euskadin Marokok duen kontsulatuari igortzea.

Honako ikusi eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botoekin (7 BILDU eta 1 EAJ) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Bildu Koalizioak aurkezturiko mozioa Hassanna Aaliari sahararraren asilo politikoaren ingurukoa

BIGARRENGOA: Ibarra Udalak eskatzen die Agintaritzari eskudunei eta Barne Ministroari gai honi heltzeko eta berriz aztertzeko Hassanna Aalia-ren asilo politikoaren eskaera; izan ere, bere herrialdera itzultzen bada, zigor gogorra ezarriko diote agintari okupatzaile marokarrek, eta ezin izango du kartzelarik atera bere bizitza osoan, oso pertsona aktiboa delako politikoki eta inoiz ez diolako utzi borrokatzeari modu baketsuan bere herriaren autodeterminazio eskubidearen alde. Dagoeneko borroka horrengatik hainbat eta hainbat aldiz atxilotua izan da eta sarritan torturak pairatu ditu.

HIRUGARRENGOA: Ibarra Udalak dei egiten die herritarrei Hassanna Aali gaztearen alde eta bere expulsioaren aurka burutuko diren mobilizazioetan parte hartzea

LAUGARRENGOA: Erabaki hau jakinarazi Fronte Polisarioak Euskadin duen ordezkariari, Espainiako Gobernuko Barne Ministerioari eta Euskadin Marokok duen kontsulatuari.

BEDERATZIGARRENA

GALDE-ERREGUAK

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.